

# A R A L A R

POR MATXIN LABAYEN

Aralar... gauza aundi, aundigia noski, zabalegia itz gutxieta'n mamitzeko...

Itxasoa - Zerua bezela.

Ala ere, aurrera joko degu bildurrik gabe, bildurra aolkari txarra da ta.

Ara ba gure ipuitxare'n asiera. ¿Ez al da Aralar osoa ipuitxo lilluragarri orlegi bat?

GAUA.—Amets egiteko gau zoragarria!

Ortzea, zillar ta urdiñ dago ta gure begi aundi arritue'n aurrea'n, Errege- Urdiñ ta Itzalki izugarri ta dizdiratsu bat bezela agertzen da.

Ta noski, gure gogoia ezanduta dago.

¿Zer ote da itzalki orren atzea'n, galdetuko diogu izar dirdiratsu aundi bateri— ¿Goizko Izarra—? Ba Zerua— mendi Urdiña aizez egiña— erantzun digu parrez parrez kiñuka— Paristar «Fru-Fru» batek bezela.

GOIZA.—Dena illuna arkitzen da. Ez da ezer ikusten. Ezertxore ez. Den lanbrua, utza. Mundua il deuseztu da.

Mumu gaizto baten xelebrekeri bat?

Biotza larri, estu arkitzen da— alargun.

Zer gertatuko da? Gauza izugarri bat?

Bildurrez gaude... Noizbait bukatuko al da ez— baitasun ikarakor au?

Bañan ara bat batea'n eguzkia agertu... koko baten antzera

Urrezko, Suzko borobil aundi, gorri, ori, distikor bat bezela.

Mantzo mantzo, ixil ixillik— mundua ez esnatzeko noski asi da zeru aldera igotzen lotsatuta edo bildurrez.

Bere izpi bizkor biziak— illun beltza gogorki erasoaz—

errukirik gabe zulatuaz— ara berriz sortu, piztu azi—

oh mirari zoragarria— zelai mendi— tonor arkaitz erreka

baso —txabolak. Mundua berriz sortzen ari—da— jaiotzen

ezertatik. Irazepen berria ote degu? Egiz, ikuskai dantesko— gizandi—

PYRENAICA

EGUARDI—ARRATSALDEA.

Eguzki, Argi ugari. Argiak, erreka aundi batek bezela dena urpetu.  
Basoa'n margo asko— orlegi edo oria— txoriak kantari.  
Usai gozoak— pakea, osasuna. Nunci— belar— garo— milla margozko  
loreak— perretxikuak. Aizea ere beroaki'n, mamitu egin da.  
Artzai eta artalde— zakur eta bai ta ere mendigoizaleak—  
bai azkar itza lloiera amets egarria biotzea'n  
Basoa'n, atsedeen, zoriona. Zelaieta'n, ertz amaigeak.  
Emen, denborik ez— Lasaitasuna. Mundu arrigarri antziñeko bat.  
Elurra ta otza oraindik urruti. Bai ta ere irudi zuri zuria.  
Zucitiz billoiz— beltzak.  
Eguzkiak ia bukatu du bere lana. Bere argia orain ubelagoa.  
Emen ta an asi dira itzal ausartiak sortzen landare meiak  
bezela.  
Margoa kez dute lenengo aberastasuna.  
Otz egiten du. Ba dijoaz bai artzai— bai mendigoizalea  
bere etxera. Gaua bertan dago. Zer pollita txintxarri'n  
soñu gELTSUA! Emen ta an zaunka urrunak. Oyarzun  
mugageak. Artzaiak txistuka.  
Ta bukatzeko ,azken otoitza: Mikel Mikel saildua—  
zaindu— zaindu Euskalerrria. Ala izan dedilla orain eta  
beti.

